



# Zurekin hobetzen dugu

Moldatu zure poliza gure aukerako estaldurekin:


## 1. Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezak barne)



3 ordu (3 zerbitzu/urteko)

Garbigailua, lehorgailua, hozkailua, izozkailua, ontzi-garbigailua, labea, mikrouhin-labea, sukalde elektrikoa/bitrozeramika eta keak ateratzeko kanpaia konpontzeko eta Aseguru Etxeak bidalitako profesionalaren desplazamendu eta lehenengo 3 orduko zerbitzuen gastuak gure gain hartuko ditugu; baita hauek konpontzeko erabilitako pieza edo materialen kostua ere.

Aplikatu zaio:



## 2. Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezarik gabe)



3 ordu (3 zerbitzu/urteko)

Garbigailua, lehorgailua, hozkailua, izozkailua, ontzi-garbigailua, labea, mikrouhin-labea, sukalde elektrikoa/bitrozeramika eta keak ateratzeko kanpaia konpontzeko eta Aseguru Etxeak bidalitako profesionalaren desplazamendu eta lehenengo 3 orduko zerbitzuen gastuak gure gain hartuko ditugu.

Aplikatu zaio:



## 3. Edukiak balio estetikoak galtzea



Aseguru-polizak bermatzen dituen:

- Suteak, tximistak eta leherketak
- Arrisku osagarriak
- Urak eragindako kalteak
- Lapurretak eragindako kalteak

Estalduretako baten ondorioz, ondasun higigarrietako altzari-elementuen zatiren bat kaltetu eta hau konpontzean, multzoaren hasierako harmonia estetikoak hondatzen bada baldintza partikularretan zehaztutako kalte-ordaina izango duzu.

Aplikatu zaio:



## 4. Asistentzia PLUS



3 ordu (2 zerbitzu/urteko)

Polizaren estalduretan estalita ez dagoen kalteren bat gertatuz gero, profesional baten laguntza izango duzu, berariaz jasotako baldintza eta mugen barnean. Hain zuzen, gure gain ondorengo gastuak hartuko ditugu:

- Bertaratu den profesionalaren desplazamenduen kostuak
- Haren eskulanaren lehenengo hiru orduak

Aplikatu zaio:



## 5. Defentsa juridiko zabala



Zure izenean ondorengoak erreklamatu ditugu:

**Etxebizitzarekin lotutako erreklamazioak:** Ke-edo gas-isuriek sortutako eragozpenengatik, etxebizitzaren inguruko zortasun, muga edo mehelinei buruzko gatazkengatik edota Jabekideen Erkidegoak hartutako erabaki kaltegarrien aurka.

**Laneko erreklamazioak:** adiskidetzeko-organismo aurrean eta lan-arloko jurisdikzioan, enpresariarekin edo erakunde publikoarekin sortzen diren gatazka indibidualetan eta Gizarte Segurantzari gizarte-prestazioen erreklamazioak.

**Zuzenbide Fiskala:** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenekin zuzeneko erreklamazioetan idazkien erredakzio-lanak.

**Etxe-zerbitzuko langileak:** Gizarte Segurantzako erregimenean altan emandako etxe-zerbitzuko langileak egiten dizkioten erreklamazioen aurrean defendatzea.

Aplikatu zaio:



## 6. Kontsumitzailearen defentsa juridikoa



Gure gain hartuko ditugu kalte-galeren arduradunaren kontra adiskidetasun-bidetik egindako erreklamazioak eta erreklamazio judizialen ordaintzak, hitzartutakoaren ondorengo ez betetze kasuetan:

**Ondasun higigarrien erosketak eta salerosketak,** gordailuko, trukeko, pignorazioko eta antzeko beste kontratuak.

**Zerbitzu-kontratuak,** profesionalen, mediko eta ospitalekoen, bidaia, turismo eta ostalaritzako, irakaskuntza eta eskola-garraioko, garbiketara, arropa-garbiketara eta tindaketara eta etxe-aldaketara zerbitzu kontratuak, baita etxetresna elektrikoak konpontzeko zerbitzu tekniko ofizialen kontratuak ere.

**Hornidura-kontratuak, ur, gas, elektrizitate eta telefonia finko, mugikor, ADSL eta telebista-kate pribatuen kontratuak, beti ere erreklamatu den zenbatekoa 300 euro baino gehiagokoa bada.**

**Etxebizitzaren zaharberitze- eta konponketa-lanak egiteko kontratuak,** etxebizitzan edo bertako instalazioetan obrak, konponketak edo kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko kontratuak.

Errentatzailearen aurka errenta-kontratuarekin zerikusia duten gatazketan Maizterraren Defentsa Juridikoa ere sartzen da.

Aplikatu zaio:

